



# **ESTATUTUAK**

## **X Biltzar Nagusia EUSKO ALKARTASUNA**

### **BARAÑAIN, 2013 maiatzak 18 eta 19**



## AURKIBIDEA

<b>ATARIKO ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK</b>	<b>3</b>
<b>I. ATALBURUA. ALDERDIKIDEAK ETA JARRAITZAILEAK</b>	<b>5</b>
<u>I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK</u>	5
<u>II. ATALA. ALDERDIKIDEAK</u>	6
<u>III. ATALA. JARRAITZAILEAK</u>	8
<b>II. ATALBURUA. ALDERDIAREN LURRALDE ANTOLAMENDUA</b>	<b>10</b>
<u>I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK</u>	10
<u>II. ATALA. ORGANO NAZIONALAK</u>	11
BILTZAR NAGUSIA	11
BATZAR NAGUSIA	14
NAZIO BATZORDE ERAGILEA	18
IDAZKARITZA NAGUSIA	20
BATZORDE IRAUNKORRA	21
BERMAPIDE BATZORDEA	22
<u>III. ATALA. HIRI ORGANOAK</u>	23
HIRI BATZARRA	24
HIRI BATZORDE ERAGILEA	25
<u>IV. ATALA. ESKUALDEKO ETA LURRALDEKO</u>	
<u>KOORDINAZIO ORGANOAK</u>	27
ESKUALDEEN KOORDINAZIOA	27
ESKUALDE BATZARRA	27
ESKUALDEKO KOORDINAZIO BATZORDEA	29
LURRALDE BATZARRA	30
LURRALDEKO KOORDINAZIO BATZORDEA	32
<b>III. ATALBURUA. KARGU PUBLIKOAK</b>	<b>33</b>
<b>IV. ATALBURUA. DIZIPLINA ERREGIMENA</b>	<b>35</b>
<b>V. ATALBURUA. GAZTE ABERTZALEAK</b>	<b>38</b>
<b>VI. ATALBURUA. FINANTZA GUTUNA</b>	<b>39</b>
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA	41
BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	41
HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	41
AZKEN XEDAPENEN ARTEAN LEHENA	42
AZKEN XEDAPENEN ARTEAN BIGARRENA	42
XEDAPEN INDARGABETZAILE	42

## **ATARIKO ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua**

EUSKO ALKARTASUNA (EA aurrerantzean) euskal esparru nazionaleko alderdi politiko sozialdemokrata da, eta Euskal Herriko lurralde-batasuna eta independentzia (Europar Batasunaren barruan Estatu propioa eraikita), eta gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzea du helburu.

EA alderdi abertzalea, demokratikoa, errepublikanoa, ezkertiar eraldatzailea, ez-konfesionala eta laikoa da. Europak giza eskubideen, garapen iraunkorraren, gizarte-justiziaren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta bakearen aldeko jardunean duen tradizio aurrerakoian oinarrituta daude EAren teoria eta praktika.

### **2. artikulua**

EAren hizkuntza ofiziala euskara da. Euskararen erabilera bultzatu eta bermatu egingo da beti, beste hizkuntza batzuk erabiltzeko aukera aparte utzi gabe, betiere egoera soziolinguistiko erreala kontuan hartuta.

Euskararen erabilera lehenetsiko da Alderdiaren organoetan, eta euskararen jakintza-maila kontuan hartuko da kargu publikoak edo Alderdiko karguak eskuratzeko garaian. Horretarako, hainbat alderdi hartuko dira aintzat, hala nola adina eta eremu bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa.

### **3. artikulua**

Euskal Herriko lurralde osoan dago antolatuta EA. Euskal Herria osatzen duten lurraldeak honako hauek dira: ARABA, NAFARROA BEHEREA, BIZKAIA, GIPUZKOA, LAPURDI, NAFARROA GARAIA eta ZUBEROA.

Euskal Herritik kanpo, Diasporako euskal komunitateen jardun politikoa bultzatuko du EAK. Erakunde horiek hiri-erakundeen maila organiko eta juridiko bera izango dute, arauz ezartzen den lotura-sistemari jarraiki.

### **4. artikulua**

EA osatzen duten pertsonen jarduna –kanpokoa zein barrukoa– demokratikoa izango da, eta zintzotasunaren, ereduaren, elkartasunaren, berdintasunaren, zintzotasunaren eta errespetuaren printzipio etikoei jarraiki beteko da.

## **5. artikulua**

EAren kudeaketa –kanpokoa zein barrukoa– honako printzipio hauetan oinarrituta egongo da: konstantzia, motibazioa, pertsonetikiko hurbiltasuna eta komunikazioa, zorrozatasuna, gardentasuna, parte-hartzea eta talde-lana.

## **6. artikulua**

EAK nortasun juridiko propioa eta jarduteko ahalmen osoa du, eta Estatutu hauek eta Alderdiaren organoek beren eskumenen eremuan onartzen dituzten erregelamenduek arautzen dute EAren funtzionamendua.

## **I. ATALBURUA. ALDERDIKIDEAK ETA JARRAITZAILEAK**

### **I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **7. artikulua**

Alderdiaren jardueretan laguntzeko eta parte hartzeko borondatea agertzen duten, eta Alderdiaren oinarritzko printzipioak, Estatutuak, erregelamenduak eta indarrean dauden gainerako dokumentuak onartzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonak izan daitezke EAko alderdikide.

Afiliatuta ez badaude ere EAren proiektu politikoarekin bat datozen eta proiektu hori zabaltzen laguntzen duten 16 urtetik gorako pertsonak izango dira EAren jarraitzaileak. Jarraitzaile gisa dagozkien eskubideak bermatzeko, beharrezkoak diren datu guztiak jarriko dituzte Alderdiaren esku.

#### **8. artikulua**

EAko alderdikideak edo jarraitzaileak ezin izango dira beste alderdi politiko batean afiliatuta egon, Euskal Herritik kanpokoak diren eta antzeko helburu ideologikoak dituzten, alderdiaren hauteskunde-eskumenekoak ez diren eta txosten politikoan jasotako printzipio ideologikoen aurkakoak ez diren erakundeen kasuan izan ezik.

#### **9. artikulua**

EAko alderdikideek eta jarraitzaileek EAren helburu politikoekin bat datozen gizarte-mugimenduetan, elkarre-sarean eta sindikatuetan parte har dezaten bultzatuko da. Horretarako, herri eta lurralde bakoitzean eta Euskal Herri osoan beharrezkoak diren koordinazio-baliabideak izango ditu Alderdiak.

#### **10. artikulua**

Nazio Batzorde Eragilearen Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritza arduratuko da alderdikideei eta adiskideei lotutako prozesuez eta zerrendez.

#### **11. artikulua**

Afiliatzeko eskaerak bideratzeko modua eta baldintzak, afiliazioaren jakinarazpenak eta ebazteko epeak erregelamenduaren arabera arautuko dira.

Nazio Batzorde Eragilearen Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzak afiliazioaren arloan hartzen dituen ebazpenen aurkako errekurtsua jarri ahal izango da Bermapide Batzordean, arauz ezarritako baldintzetan eta epeetan.

## II. ATALA. ALDERDIKIDEAK

### **12. artikulua**

Eusko Alkartasunako alderdikideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) EAren kanpoko proiektzioarekin eta erakunde-jarduerarekin zerikusia duten gai guztiei buruzko informazioa jasotzea, eta Alderdiaren bizitzan parte hartzea eta, horretarako, beren erakundeetan eztabaidatzea eta botoa ematea.
- b) Norberaren eta besteen iritzi politikoen inguruan eztabaidatzeko eta kritika egiteko eskubidea erabiltzea eta, horretarako, iritziak Alderdiaren barneko adierazpen-bideen barruan hitzez zein idatziz adierazteko askatasuna izatea.
- c) Alderditik aholkularitza juridikoa, kanpoko babesa (bidegabeko erasoen aurrean) eta barneko babesa jasotzea, betiere organo eskudunen jardun inpartzialaren eta zuzenaren bidez.
- d) Bermapide Batzordera jotzea, dituzten asmoak eta eskubideak behar bezala babesteko.
- e) Beste hiri-erakunde, lurralde-erakunde edo nazio erakunde batzuetara joatea, hitzik eta botorik gabe, betiere batzarrak berak baimena ematen badu. Salbuespen gisa, hitza izan dezakete erregelamenduan azaldutako kasu jakin batzuetan.
- f) Alderdiaren jardueretan eta haren helburuen lorpenean parte hartzeko eta agintzen zaizkien zereginetan arrakasta bermatzeko prestakuntza politikoa edota teknikoa jasotzea.
- g) Hiri Batzorde Eragileek parte hartzeko garatzen dituzten prozesu guztietan parte hartzea, eta Hiri Batzorde Eragileek sortutako batzorde sektorialetako kide izatea.
- h) Erakundearen baliabide materialak eta giza baliabideak erabiltzea betebeharrak betetzeko eta eskubideak erabiltzeko, betiere dagokion instantziaren organo betearazleen baimena lortuz gero.
- i) EAren organoei galderak, proposamenak, alegazioak, kexak eta iradokizunak aurkeztea (betiere indarrean dauden Estatutuetan araututakoari eta onartutako beste erregelamendu batzuei jarraiki), eta erantzuna jasotzea.
- j) Alderdiaren barneko karguak eta kargu publikoak hautatzea, eta kargu horietarako hautatuak izatea (onarpena jaso ondoren). Emakumeen eta gizonen artean eta adin desberdineko alderdikideen artean oreka lortzen saiatu beharko da. Ez da inor diskriminatuko sexuagatik, arrazagatik, adinagatik edo erlijioagatik. Eskubide hori erabiltzeko, beharrezko baldintza izango da kotizazioa egunean izatea.

k) Alderdiak izendatuta barneko karguak zein kargu publikoak dituzten hautatuen eta arduradunen kontrol politikoa gauzatzea, egiazko informazioari, pertsonetikiko errespetuari eta arauz ezarritako lekuari eta denborari jarraiki.

l) Beren datuen konfidentzialtasuna errespetatzea, eta datu horiek alderdiaren funtzioetarako baino ez erabiltzea.

### **13. artikulua**

Alderdikideek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Alderdiaren ideologia eta hartutako erabakiak, arauak eta programak onartzea.

b) Alderdiaren hautagaiei botoa ematea.

c) Organo eskudunek beren arauzko jardueraren esparruan eta beharrezkoak diren formalitateekin ematen dituzten ebazpenak ontzat hartzea.

d) Beren eskubideak erabiltzean eskuragarri duten informazio pribilegiatua okerraz erabiltzea.

e) Gainerako alderdikideak errespetatzeko jokabidea agertzea.

f) EAz bestelako ezein erakunde politikotan afiliatuta ez egotea, Estatutu hauen 8. artikuluan jasotakoari jarraiki.

g) Parte hartzeko prozesu guztietan eta kide diren batzorde sektorialetan EArekin zintzo jardutea.

h) Euskara ikastea eta erabiltzea, ahal duen neurrian.

i) Alderdiari ekonomikoki laguntzea eta, horretarako, arauz ezarritako kuota banku-helbideratzearen bidez ordaintzea. Salbuespen gisa, lurralde-koordinatzailea jakinaren gainean egonik eta nazio finantza-arduradunak erabakita, banku-helbideratzeaz bestelako modu batean ordaintzea onartuko da.

j) EAK bizitza organikoaren eta politikoaren barruan antolatzen dituen egintzetara, eta, bereziki, Alderdiaren organoen bileretara joatea (organo horietarako esanbidez izendatuak izan badira).

k) Adostasuna eman ondoren organo eskudunek esleitzen dizkieten zereginetan laguntzea eta jardutea, agertzen duten prestasunaren eta dituzten gaitasunen arabera.

l) Ezartzen diren bideak erabiliz, Alderdiaren barruan betetzen dituzten zereginei buruz duten informazio guztia igortzea.

m) Hautagai-zerrenda batean sartzea Alderdiak eskatzen dionean, hori eragozten duten ezinbesteko kasuetan izan ezik.

n) Hauteskunde-prozesuetan ikuskatzailea edo ahalduna izatea.

ñ) Norberaren iritzi politikoen inguruan eztabaidatzeko eta kritika egiteko eskubidea erabiltzea eta, horretarako, Alderdiaren barneko adierazpen-bideetara jotzea.

o) Alderdiaren programaren, erabakien edo ebazpenen aurka ez jardutea, eta iritziak ardurarik gabe edo Alderdiarekiko edo Alderdiak osatzen dituen koalizioekiko leialtasunik gabe jendaurrean ez adieraztea.

#### **14. artikulua**

Eako alderdikide-izaera galduko da honako arrazoi hauengatik:

1) Heriotzaren kasuan.

2) Alderdikideak hori erabakitzen duenean eta uko egiteko asmoa alderdiaren organoei zinez jakinarazten dienean.

3) Alderdikideek erregelamendu bidez ezarrita dituzten kuotak urtebetetik gorako aldi batean ordaintzen ez dituztenean, ordaintzeko zinez eskatu ondoren, kuotak ordaindu ez izanaren arrazoiak langabezia-egoera edo ezinbesteko arrazoi bat izan dela justifikatzen denean izan ezik.

4) Nazio Batzorde Eragilearen zehapen-ebazpen irmo bidez, Estatutu hauetan eta diziplinazko erregimenean ezarritakoari jarraiki.

### **III. ATALA. JARRAITZAILEAK**

#### **15. artikulua**

Jarraitzaileen eskubideak honako hauek dira:

a) EAren kanpoko proiektioarekin eta erakunde-jarduerarekin zerikusia duten gai guztiei buruzko informazioa jasotzea.

b) Alderdiak eskaintzen dituen zerbitzuetatik laguntza eta aholkuak jasotzea.

c) Edozein batzarretara joatea, hitzik eta botorik gabe, betiere batzarrak berak baimena ematen badu. Salbuespen gisa, hitza izan dezakete erregelamenduan azaldutako kasu jakin batzuetan.

- d) Alderdiaren jardueretan eta helburuen lorpenean laguntzeko eta agintzen zaizkien zereginetan arrakasta bermatzeko prestakuntza politikoa edota teknikoa jasotzea.
- e) Hiri Batzorde Eragileek parte hartzeko garatzen dituzten prozesu guztietan parte hartzea, eta Hiri Batzorde Eragileek sortutako batzorde sektorialetan sartzea. Horretarako, beharrezkoa izango da Hiri Batzorde Eragileari eskaera egitea, eta hark onartzea.
- f) Beren datuen konfidentzialtasuna errespetatzea, eta datu horiek alderdiaren funtzioetarako baino ez erabiltzea.
- g) Alderdikide-izaera eskuratzea, Estatutu hauetan horretarako ezarritako baldintzak bete ondoren.

## **16. artikulua**

Jarraitzaileen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Alderdiaren ideologia eta hartutako erabakiak, arauak eta programak onartzea.
- b) Alderdiaren hautagaiei botoa ematea.
- c) Organo eskudunek beren arauzko jardueraren esparruan eta beharrezkoak diren formalitateekin ematen dituzten ebazpenak ontzat hartzea.
- d) Beren eskubideak erabiltzean eskuragarri duten informazio pribilegiatua oker ez erabiltzea.
- e) Gainerako alderdikideak errespetatzeko jokabidea agertzea.
- f) EAz bestelako ezein erakunde politikotan afiliatuta ez egotea, Estatutu hauen 8. artikuluan jasotakoari jarraiki.
- g) Parte hartzeko prozesu guztietan eta kide diren batzorde sektorialetan EArekin zintzo jardutea.
- h) EAK hartzen dituen erabaki eta ebazpenen aurkako jarduerarik ez egitea, eta artikulua honetan ezarritako betebeharrak betetzea.

## **II. ATALBURUA. ALDERDIAREN LURRALDE ANTOLAMENDUA**

### **I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **17. artikulua**

EA hiri- eskualde-erakundeetan egituratuta dago. Halaber, lurralde-eremuko egitura bat du, ekintza politikoa koordinatzeko. Egitura horretan, Lurralde Historiko bakoitzeko eskualdeak daude ordezkaturak.

Horrela, beraz, hiriko, eskualdeko, lurraldeko eta nazioko eremuetan antolatuta dago EA.

#### **18. artikulua**

Eremu nazionalako organoak honako hauek dira:

- a) Biltzar Nagusia
- b) Batzar Nagusia
- c) Nazio Batzorde Eragilea
- d) Idazkaritza Nagusia
- e) Batzorde Iraunkorra
- f) Bermapide Batzordea

#### **19. artikulua**

Hiri-eremuko organoak honako hauek dira:

- a) Hiri Batzarra
- b) Hiri Batzorde Eragilea

#### **20. artikulua**

Eskualde-eremuko organoak honako hauek dira:

- a) Eskualde Batzarra
- b) Eskualdeko Koordinazio Batzordea

#### **21. artikulua**

Lurralde-eremuko organoak honako hauek dira:

- a) Lurralde Batzarra
- b) Lurraldeko Koordinazio Batzordea

## **22. artikulua**

Alderdiaren ideologia hobeto zabaltzeko, Alkartetxeak Euskal Herriatik kanpo ere sortu ahal izango dira. Horien antolamendu-egitura erregelamenduaren arabera arautuko da.

## **II. ATALA. ORGANO NAZIONALAK**

### **BILTZAR NAGUSIA**

## **23. artikulua**

EAKo alderdikideek ordezkatuak izateko, parte hartzeko eta erabakitzeko duten organo gorenaren da Biltzar Nagusia.

## **24. artikulua**

Biltzar Nagusia ohikoa edo ezohikoa izan daiteke.

## **25. artikulua**

Ohiko Biltzar Nagusia lau urtean behin egingo da.

Aurrekoa gorabehera, Batzar Nagusiak gehienez ere sei hilabetez atzeratu ahal izango du Ohiko Biltzar Nagusirako deialdia, betiere Nazio Batzorde Eragileak proposatuta eta aldi horretan hauteskundeak badaude edota beste edozein inguruabarren ondorioz, betiere Batzarraren ustez deialdia atzeratzeko bezain garrantzitsua bada.

Deialdia Batzar Nagusiak egingo du, Nazio Batzorde Eragileak proposatuta. Deialdia SEI hilabete lehenago egin beharko da gutxienez, gai-zerrenda eta aztertu beharreko gaien azalpen-memoria adierazita. Hala ere, Biltzarrerako deialdiaren egunean beste hauteskunde- edo plebiszitu-deialdiren bat badago, Batzar Nagusiak, salbuespen gisa, Biltzarraren epea edo eguna aldatu ahal izango du.

Azalpen-memoriak nahikoa izan beharko du, eta Biltzarraren helburua, eztabaidatu beharreko txostenak eta horien ildo nagusiak jaso beharko ditu gutxienez. Nazio Batzorde Eragileak Biltzarrari buruzko informazioa igorriko die hiri-erakundeei, alderdikideek eztabaida dezaten eta, hala badagokio, zuzenketak proposa ditzaten.

Biltzar Nagusia, Mahaia osatzen den arte, Prestaketa Batzorde batek prestatu eta zuzenduko du. Prestaketa Batzordea Batzar Nagusiak izendatuko du Nazio Batzorde Eragileak proposatuta, deialdia egiteko unean.

## **26. artikulua**

Ezohiko Biltzar Nagusirako deialdia Batzar Nagusiak egingo du, eta honako kasu hauetan egingo da:

- a) Biltzarraren beraren ekimenez, Batzar Nagusiaren bi herenek erabaki ondoren.
- b) Eskaera egiteko garaian alderdikideen laurdenek Nazio Batzorde Eragileari eskaera arrazoitua egiten diotenean.
- c) Nazio Batzorde Eragilearen bi herenek eskatzen dutenean.

Ezohiko Biltzar Nagusia Batzar Nagusiaren Mahaiak eskaera jaso (artikulu honetan araututako kasuen barruan) eta bi hilabeteko epearen barruan egingo da.

## **27. artikulua**

Biltzar Nagusia hiri-erakundeek beren kideen artean aukeratutako alderdikideek osatzen dute. Kuoten ordainketa egunean edo salbuetsita duten eta ahalmen politiko osoa duten alderdikideen kopuruaren proportzionala izango da kideen kopurua, Antolaketa Erregelamendu Nazionalari eta Diziplina Erregimenari jarraiki. Hiri-erakunde bakoitzeko gutxienez konpromisario bat bermatuko da.

Halaber, Batzar Nagusiko, Nazio Batzorde Eragileko, Lurraldeko Koordinazio Batzordeetako eta Bermapide Batzordeko kideek eta lurraldeko eta lurraldez gaindiko hautetsiek osatuko dute Biltzarra.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, hiri-erakundeek aukeratutako biltzarkideek baino ez dute izango botoa emateko eskubidea.

Konpromisario bakoitzak boto bat izango du.

Halaber, txostenetarako zuzenketak aurkeztu dituzten eta zuzenketa horiek beren Hiri Erakundean eta Hiri Batzarrean onartu zaizkien, baina bertan konpromisario izendatzea lortu ez duten pertsonak Biltzarrera joan ahal izango dira, hitzarekin, baina botorik gabe.

Biltzarreko kideak aukeratzeko, arauz ezarritako zerrenda irekien sistemari jarraituko zaio.

## **28. artikulua**

Biltzar Nagusiaren eskumenak honako hauek dira:

- a) Estatutuak onartzea eta berritzea.

- b) Alderdiaren ildo politikoa finkatzea eta, horretarako, helburuak eta estrategiak ezartzea eta eguneratzea.
- c) Batzar Nagusiko kideak aukeratzea (75 kide).
- d) Idazkari nagusia aukeratzea.
- e) Nazio Batzorde Eragileko gainerako kideak aukeratzea.
- f) Bermapide Batzordeko kideak aukeratzea (bost kide).
- g) Nazio Batzorde Eragilearen eta Idazkaritza Nagusiaren kudeaketa –Biltzar batetik bestera egin– onartzea edo baztertzea.
- h) Alderdiaren desagitea erabakitzea.

Antolaketa Erregelamendu Nazionalean, artikuluko honen d) eta e) letretan adierazitako aukeraketa-prozesuetarako baldintzak eta mugak ezarri ahal izango dira.

## **29. artikulua**

Batzar Nagusiko kideak aukeratzeko, zerrenda irekien sistemari jarraituko zaio.

Horretarako, ezin izango zaio botoa eman aukeratu beharreko kideen % 80ri baino gehiagori.

Ohiko Biltzarrean aukeratu beharreko Nazio Batzorde Eragileko kideak zerrenda irekien sistemaren bidez aukeratuko dira.

Bermapide Batzordeko kideak sistema berarekin aukeratuko dira, bozketa bereizi batean.

Hautetsiek, izendatuak izateko, konpromisarioen botoen % 10 lortu beharko dute gutxienez.

Ohiko Biltzarrak aukeratutako organoen karguetan geratzen diren plaza hutsen ordezkapena (baita Biltzarrak izendatutako Batzar Nagusiko kideen kasuan ere) Biltzar batetik bestera egingo da, Batzar Nagusiak egindako aukeraketaren bidez, Idazkaritza Nagusiaren kasuan izan ezik. Kasu horretan, beste Biltzar Nagusi baterako deialdia egin beharko da; nolana ere, jarduneko idazkari nagusi bat izendatu ahal izango da.

### **30. artikulua**

Biltzar Nagusiaren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, gehiengo absolutua eskatzen duen Estatutuen onarpenaren, eta bi herenen gehiengoa eskatzen duen Alderdiaren desagitearen kasuan izan ezik.

## **BATZAR NAGUSIA**

### **31. artikulua**

Batzar Nagusia Alderdiaren organo gorena da Biltzar batetik besterako tartean. Biltzar Nagusiaren erabakiak betetzen direla zaindu, eta Alderdia zuzentzen du, Biltzarrak eskuordetuta.

Batzar Nagusiak uneko inguruabarretara egokituko du Alderdiaren ildo politikoa, eta, horretarako, hauteskunde-programen oinarritzko jarraibideak onartu eta Alderdiaren gobernu-organismoak eta kargu publikoak bultzatu eta kontrolatuko ditu.

Era berean, Batzar Nagusiak, bere eskumenen esparruan, batzorde sektorialen bitartez jardun ahal izango du. Horretarako, batzorde horien eraketa eta erabakiak onartu, eta horien bidezko jarraipena egingo du.

### **32. artikulua**

Batzar Nagusia osatzen dutenak honako hauek dira:

- a) Biltzar Nagusiak izendatutako 75 kide.
- b) Gutxienez 10 alderdikide dituzten hiri-erakundeetako koordinatzaileak. Gainera, 20 alderdikide baino gehiago dituzten hiri-erakundeek beste ordezkari bat izendatuko dute 20ko kopurutik aurrerako berrogeita hamar alderdikideko. Bestalde, alderdikide gutxiago dituzten hiri-erakundeen ordezkaritza ahalbidetzeko, estatutuekin eratutako hiri-erakundeen taldeak osatu ahal izango dira, betiere lurralde-koordinatzaileak baimena eman ondoren. Dena dela, eskualde desberdinetako hiri-erakundeek ezin izango dituzte taldeak eratu.
- c) Nazio Batzorde Eragileko eta Lurraldeko Koordinazio Batzordeetako kideak.
- d) Bermapide Batzordeko kideak.
- e) Lurraldeko, lurraldez gaindiko eta, hala badagokio, Autonomia Erkidegoko hautetsiak. Alkateak eta foru-diputatuek edota horien Nafarroako homologoak.
- f) Gazte Abertzaleak erakundearen Nazio Batzorde Eragilea

### **33. artikulua**

Batzar Nagusian, aurreko artikuluen a) eta b) idatz-zatietan aipatutako kideek baino ez dute izango botoa emateko eskubidea.

Erabakiak gehiengo soilarekin hartuko dira, Estatutu hauek gehiengo kualifikatuak ezartzen dituzten kasuan izan ezik.

Batzar Nagusiaren funtzionamendua eta bateraezintasunen erregimena arauz ezarriko dira.

### **34. artikulua**

Batzar Nagusiaren ahalmenak honako hauek dira:

- a) Biltzar Nagusiaren erabakiak betetzen direla zaintzea.
- b) Alderdiaren politika orokorra kontrolatzea eta bultzatzea.
- c) Ohiko edo Ezohiko Biltzar Nagusirako deialdia egitea, eta konpromisarioen ratioak onartzea, hiri-erakunde bakoitzak duen alderdikide kopuruaren arabera.
- d) Alderdiaren aurrekontuak onartzea, horiek lantzen parte hartzea, eta Nazio Batzorde Eragilearen aurrekontu-proposamena landu aurretik aurrekontu horiek bildu beharreko lehentasunak zehaztea. Aurrekontuen egikaritzea, Urteko Kontuak eta Kudeaketa Plana onartzea.
- e) Idazkaritzen eta, hala badagokio, sortzen diren idazkariordetzen organigrama onartzea, horiek lantzen parte hartzea, eta Nazio Batzorde Eragileak proposamena landu aurretik organigrama horrek erantzun beharreko premiak eta arazoak zehaztea.
- f) Plaza hutsen eta dimisioen kasuan, Nazio Batzorde Eragileko eta Batzorde Iraunkorreko kideak aukeratzea, betiere Estatutu hauei jarraiki.
- g) Nazio Batzorde Eragilearen, Idazkaritza Nagusiaren, Batzorde Iraunkorraren eta, hala badagokio, Alderdiko kargu publiko ororen kudeaketa eskatzea, onartzea edo baztertzea.
- h) Hauteskunde-programak onartzea, eta Batzorde sektorialen edo hiri-batzordeen bitartez horiek lantzen parte hartzea.
- i) Estatutu hauetan araututakoaren esparruan, hauteskunde-zerrendak onartzea, Nazio Batzorde Eragileak proposatuta:
  - Europako Parlamenturako hauteskunde-zerrendak.

- Espainiako Diputatuen Kongresurako eta Senaturako, eta Frantziako Asanblea Nazionalerako hauteskunde-zerrendak, Lurraldeko Koordinazio Batzordeei entzun ondoren.
- Eusko Legebiltzarrerako, Nafarroako Foru Legebiltzarrerako eta Batzar Nagusietarako zerrendak eta EAK erakunde horietan izango dituen bozeramaileak, Lurraldeko Koordinazio Batzordeei entzun ondoren.
- Hiriburuetako Udaletarako zerrendaburuak eta Alderdiak erakunde horietan izango dituen bozeramaileak, Hiri Batzarrei entzun ondoren.

Halaber, Batzar Nagusiak hiri-eremuko hauteskunde-zerrendak berretsi beharko ditu, Hiri Batzarrek proposatuta. Idazteko jarraitutako prozesuarekin ados egon ezean, zerrenda berriak egiteko eskatu ahal izango du.

Nazio Batzorde Eragilearen proposamena lurraldeko koordinazio-batzordeen planteamenduak aztertu ondoren egingo da.

- j) Nazio Batzorde Eragileak proposatuta, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Foru Gobernuaren, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren eta Akitaniako Eskualde Kontseiluaren Saisetako, Sailburuordetzetako, Zuzendaritzetako, Aholkularitzetako edo horien pareko karguetako titularren, eta Foru Aldundietako eta Batzar Nagusietako homologoen izendapena eta kargu-uztea onartzea. Lurralde-eremuko erakundeetako izendapenen eta kargu-uzteen kasuan, Nazio Batzorde Eragileak Lurralde Batzordeei entzun ondoren egingo du proposamena.
- k) Egiten diren hauteskunde-koalizioak eta Alderdiaren edozein organok sustatutako itunak (hauteskudeen aurrekoak edo ondorengoak, nazio-eremukoak eta lurralde-eremukoak) bi herenen gehiengo kalifikatuarekin onartzea.
- l) Biltzarrak aukeratutako kideek Bermapide Batzordean eta Batzar Nagusian utzitako postu hutsen ordezkapena (aukeraketa bidez egindakoa) onartzea.
- m) Alderdikideen zerrenda bakarra urtean behin onartzea, Nazio Batzorde Eragileak proposatuta.
- n) Alderdiaren edozein organok aukeratutako kargu publikoak baliogabetzea, Nazio Batzorde Eragileak edo Batzar Nagusiko kideen herenek proposatu ondoren.
- o) Nazio Batzorde Eragileak eta Batzorde Iraunkorrak beren eskumenen eremuan Batzar Nagusiaren esku uzten dituzten gai guztiak ebatzea.
- p) Erabaki arrazoitu bidez, salbuespen gisa eta Nazio Batzorde Eragilearen proposamenez, Hiri Batzorde Eragileak edota Lurraldeko Koordinazio Batzordeak desgitea, betiere larritasun bereziko kasuetan. Nolanahi ere, Hiriko edota Lurraldeko Kudeaketa Batzorde bat izendatuko da aldi baterako. Kudeaketa Batzorde horrek Hiri Batzarrerako edota Lurralde Batzarrerako deialdia egin beharko du hiru hilabeteko epean, Hiri Batzorde Eragile edota Lurralde Batzorde Eragile berria izendatzeko, eta Batzorde Eragile horri dagozkion funtzio guztiak

hartuko ditu bere gain aldi baterako, Alderdiaren jarraibideak betetzen ez direnean (hala nola Estatutu hauek, Biltzarraren ebazpenak edo Batzar Nagusiaren erabakiak).

- q) Kudeaketa Batzorde bat izendatzea Nazio Batzorde Eragileak batera dimititzen duen kasurako, Biltzar Nagusi batean berria izendatu arte.
- r) Biltzar Nagusiak eskuordetzen dizkion ahalmenak erabiltzea.
- s) Estatutu hauek garatzen dituzten arauak onartzea.

### **35. artikulua**

Batzar Nagusia eratzeke bilera Biltzar Nagusia amaitu eta 30-45 egunetara egingo da. Pertsonarik zaharrenak eta bi gazteenek osatuko duten Adin Mahaia zuzenduko du bilera hasieran. Lehenik eta behin, Batzar Nagusiaren Mahaia aukeratuko da. Mahaia Lehendakaritzak, Lehendakariordetzak eta Idazkaritzak osatuko dute. Batzar Nagusiaren Lehendakaritza gehiengo absolutuz aukeratuko da lehen bozketan, edo gehiengo soilaz hurrengo bozketan. Lehendakariordetza eta Idazkaritza aukeratzeko, nahikoa izango da gehiengo sinplea.

Batzar Nagusiaren Mahaia aukeratu ondoren, eta Nazio Batzorde Eragileak proposatuta, Idazkariordetzen organigrama eta adskripzioa aurkeztuko da, eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko.

Ohiko Batzar Nagusia gutxienez lau aldiz bilduko da urtean, eta Ezohiko Batzar Nagusia, berriz, Batzorde Iraunkorrak, Nazio Batzorde Eragileak, alderdikideen ehuneko hamabostek edo hitza eta botoa duten kideen herenek eskatzen dutenean bilduko da. Batzar Nagusiari deialdia egin beharko zaio, edozein hauteskunde edo plebiszitu egin eta hiru asteko gehieneko epean bil dadin.

Deialdiaren eta Batzar Nagusiaren artean, gutxienez zazpi egun natural eta gehienez hogeita hamar igaroko dira, aparteko larrialdi- eta premia-egoeraren kasuan izan ezik. Egoera hori, nolanahi ere, bilkuraren hasieran boto-emaileen gehiengo soilak hartu beharreko erabakiaren bidez onartu beharko da.

Deialdian, gai-zerrenda zehaztu beharko da, eta aztertu beharreko gaiak eta deialdiaren arrazoiak azalduko dituen memoria bat erantsi. Azalpen-memoriak nahikoa izan beharko du, eta Batzarraren aurretik aztertu beharreko gaiak buruzko gogoeta egiteko aukera eman beharko du (maila pertsonalean zein hiri-batzarren esparruan).

## NAZIO BATZORDE ERAGILEA

### 36. artikulua

Nazio Batzorde Eragilea organo gorena da Biltzar Nagusia edo Batzar Nagusia bilduta ez dagoenean, eta Estatutuetan eta organo horiek eskuordetuta esleitutako funtzio betearazleak eta kontrol-funtzioak beteko ditu.

Zehazkiago, honako hauek dira Nazio Batzorde Betearazlearen eskumenak:

- a) Alderdiaren jardura guztiak koordinatzea eta Alderdiaren erabakiak eta Biltzar Nagusiak eta Batzar Nagusiak hartutakoak bete daitezen errazteko beharrezkoak diren neurriak hartzea, Estatutuei jarraiki beste organo batzuek dituzten eskumenak aparte utzi gabe.
- b) Biltzar Nagusien txostenak egitea, eta Batzar Nagusian hauteskunde-programak lantzeko parte-hartzean oinarritutako lanen hasiera bultzatzea.
- c) Estatutu hauen esparruan, hauteskunde-zerrendak, kargu publikoen izendapenak eta, hala badagokio, horien baliogabetzeak proposatzea, Batzar Nagusiak onar ditzan, betiere hautagaiak aukeratzeko kontuan hartutako irizpide profesionalak edo politikoak azaldu ondoren eta aldez aurretik Lurraldeko, Eskualdeko eta Hiriko Koordinazio Batzar eta Organoei entzun ondoren.
- d) Bere eskumenen esparruan, beste talde politiko eta sozial batzuekin harremanak izatea.
- e) Gertaera politikoak ebaluatzea eta, ildo horretan, herritarren kezkei eta eskariei erantzuteko neurriak proposatzea eta neurri horiek gure ordezkari politikoek erakundeetan egin beharreko jardunarekin koordinatzea.
- f) Bidezko kontsulta-prozesuen ondoren, Alderdiaren aurrekontuak, aurrekontu horien egikaritzea, Urteko Kontuak eta Kudeaketa Plana proposatzea, Batzar Nagusiak onar ditzan.
- g) Alderdia organismoetan, erakundeetan, korporazioetan, sozietate publikoetan, erakundeek partaidetutako sozietateetan, komunikabide orotan eta eztabaida sozialeko eta politikoko foroetan ordezkatzeko duten pertsonen izendapena onartzea, eta lurralde-eremuan ordezkari horiek izendatzean sortzen diren desadostasun guztiak konpontzea, eremu horretako erakundeek eskatuta. Kudeaketaren kontuak emateko egiten den Batzar Nagusiari izendapen horien eta izendapen horiek bultzatu dituzten irizpideen berri emango zaio.
- h) Aurreko idatz- zatian adierazitako ordezkarien jardunaren jarraipena egitea eta, ildo horretan, jarduna finkatutako jarraibideetara eta helburuetara egokitzeak erabakiak aztertzea eta, hala badagokio, hartzea.

- i) Diziiplina-espedienteak ofizioz edo alde batek eskatuta irekitzea eta ebaztea, Eskubideen, Betebeharren eta Diziiplina Prozeduraren Erregelamenduan aurreikusitakoari jarraiki.
- j) Estatutuek eta beste barne-arau batzuek esleitzen dizkioten gainerako eskumenak, eta Batzar Nagusiak esanbidez agintzen dizkionak.
- k) Alderdiaren lau urterako Plan Estrategikoa lantzea. Plan horretan, Alderdiaren helburu estrategikoak, helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eta egikaritzeko epeak zehaztuko dira. Plan hori Batzar Nagusiak onartu beharko du, eratu eta sei hilabeteko epean gehienez.
- l) Hiri-eremuko hauteskundeen ondorengo itunak baimentzea.
- m) Beharrezkoak diren barne-eztabaidak bultzatzea, era horretan politika sektorialak edo estrategikoak alderdiari zein Herrialdeari begira zehazteko.
- n) Alderdikideen parte-hartzea, prestakuntza eta informazioa etengabe bultzatzea eta erraztea.

### **37. artikulua**

Nazio Batzorde Eragilea idazkari nagusiak eta Biltzar Nagusian aukeratutako honako idazkaritza hauek osatuko dute:

- Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzak.
- Erakundeen Arloko Politika Idazkaritzak.
- Komunikazio eta Marketing Idazkaritzak.
- Elkarbizitza eta Giza Eskubideetarako Idazkaritzak.
- Erregimen Juridiko, Ikasketa eta Formakuntza Idazkaritzak.
- Gizarte Politikako eta Aniztasunaren Kudeaketako Idazkaritzak.
- Ekonomia eta Zerga Politikarako Idazkaritzak.
- Euskara, Kultura eta Hezkuntza Idazkaritzak.
- Ingurumen Idazkaritzak.
- Nazioarteko Politikako eta Garapenerako Lankidetzako Idazkaritzak.

Adierazitako idazkaritzen funtzioak arauz garatuko dira.

Halaber, lurralde-koordinatzaileak eta Gazte Abertzaleak-eko koordinatzailea Nazio Batzorde Eragileko berezko kide izango dira.

Bestalde, EAn afiliatutako honako kargu publiko hauek ere Nazio Batzorde Eragileko kide izango dira, hitzarekin, baina botorik gabe:

- Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, edo sailburu bat.

- Nafarroako Foru Gobernuako presidentea, edo kontseilari bat.
- Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko presidentea, edo kontseilari bat.
- Europako Parlamentuko, Espainiako Kongresuko eta Senatuko, Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Foru Parlamentuko eta Frantziako Asanblea Nazionaleko bozeramaileak.
- Akitaniako Eskualde Kontseiluko, Udalbiltzako, EUDELeke eta Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioko presidentea, edo erakunde horietako bakoitzeko kide bat.

### **38. artikulua**

Nazio Batzorde Eragileak Idazkaritza bakoitzaren eta, hala badagokio, horiei atxikitako Idazkariordetzen organigrama, funtzioak eta helburu programatikoak aurkeztu beharko dizkio Batzar Nagusiari, eta hark onartu egin beharko ditu Estatutu hauetan araututako baldintzetan. Aurkezpen hori izendapena egin eta hurrengo sei hilabeteetan egin beharko da.

Idazkaritza eta Idazkariordetza bakoitzaren esparruan edo Batzar Nagusiaren beraren ekimenez, batzorde sektorial iraunkorrak eta txosten edo lantalde puntualagoak sortu ahal izango dira.

Era berean, Idazkaritza bakoitzeko titularrak beren funtzioen garapenaren, eta helburu programatikoaren betetze-mailaren berri eman beharko dio Batzar Nagusiari, urtean behin gutxienez. Informazio hori dagokion urtearen hurrengo urteko lehen hiruhilekoan eman beharko da.

### **39. artikulua**

Nazio Batzorde Eragilerako deialdia idazkari nagusiak egingo du, eta hark berak zuzenduko du. Halaber, deialdia kideen gehiengo absolutuak eskatuta egin ahal izango da.

Eztabaidak sekretuak izango dira, eta erabakiak modu solidarioan onartuko dituzte kideek.

## **IDAZKARITZA NAGUSIA**

### **40. artikulua**

Idazkaritza Nagusiak Alderdiaren ordezkaritza politiko gorena du, eta Alderdiaren funtzionamendu egokia zaintzen du. Halaber, organo nazional guztiak koordinatzen ditu, eta Biltzar Nagusiaren, Batzar Nagusiaren, Nazio Batzorde Eragilearen eta Batzorde Iraunkorraren erabakien betearazpena agintzen du.

Idazkaritza Nagusiak kalitateko botoa du Nazio Batzorde Eragilean eta Batzorde Iraunkorrean, eta bi organo horiek zuzentzen ditu. Horrez gain, hasiera ematen die Biltzar Nagusiei eta Batzar Nagusiei.

#### **41. artikulua**

Idazkari nagusiak Alderdiaren legezko ordezkaritza du, eta ahalmen osoa du Alderdiaren izenean kontratatzeko eta zuzenbidean onartutako edozein titulu bidez eta edozein modutan balioztatzeko.

Halaber, Alderdiaren administrazioaren funtzionamendu egokirako komenigarritzat hartzen dituen ahalordetze orokorrak edo bereziak eman ahal izango ditu.

Aurreko guztia Nazio Batzorde Eragileari jakinarazi beharko zaio aurrez, larrialdi-arrazoien kasuan izan ezik.

Idazkaritza Nagusiak bere kudeaketaren kontuak eman beharko dizkio Batzar Nagusiari, deialdia egin ondoren Batzarra biltzen den bakoitzean.

#### **42. artikulua**

Idazkari nagusiaren dimisioaren, ezintasunaren edo heriotzaren kasuan, Batzar Nagusiak jarduneko idazkari nagusi bat aukeratuko du. Sei hilabeteko gehieneko epean, Ezohiko Biltzarrerako deialdia egingo da, Idazkaritza Nagusi berria izendatzeko.

#### **43. artikulua**

Idazkari nagusia Nazio Batzorde Eragilearen eta Batzorde Iraunkorraren erabakiak betearazteaz arduratuko da. Halaber, Nazio Batzorde Eragilearen arloak koordinatu, eta nazio-eremuan hartutako erabakien fede emateko zereginak beteko ditu.

### **BATZORDE IRAUNKORRA**

#### **44. artikulua**

Biltzarrak aukeratutako Batzorde Iraunkorra Nazio Batzorde Eragilearen parte izango da. Idazkaritza Nagusiak ez ezik, honako idazkaritza hauek ere osatuko dute: Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzak, Erakundearen Arloko Politika Idazkaritzak eta Komunikazio eta Marketing Idazkaritzak.

#### **45. artikulua**

Batzorde Iraunkorraren funtzioak honako hauek dira:

- a) Alderdiaren eta haren ordezkarien jarduera politikoaren eta erakunde-jardueraren jarraipena eta kontrola egitea.

- b) Jarduera publikoaren jarraipena eta kontrola egitea.
- c) Alderdia eta haren ondarea kudeatzea.
- d) Alderdiko langileak zuzentzea.
- e) Alderdikideen eta adiskideen zerrenda eta haren gorabeherak kontrolatzea.
- f) Antolaketa Erregelamendu Nazionalak, Nazio Batzorde Eragileak edo Batzar Nagusiak agintzen dizkion guztiak.

#### **46. artikulua**

Batzorde Iraunkorra berak erabakitzen duen maiztasunarekin bilduko da.

Batzorde Iraunkorraren erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, idazkari nagusiak kalitateko botoa izango du.

Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakiak Nazio Batzorde Eragileari jakinaraziko zaizkio horrek egiten duen hurrengo bileran, eta hartutako erabakia berretsi edo gaitzetsiko du.

### **BERMAPIDE BATZORDEA**

#### **47. artikulua**

Bermapide Batzordea kide anitzeko organoa da, eta Biltzar Nagusiak aukeratutako bost kidez osatuta dago. Gutxienez bertako hiru kide beharko dira ebazpena emateko.

#### **48. artikulua**

Bermapide Batzordeak honako funtzio hauek betetzen ditu:

- a) Alderdiaren Estatutuak eta erregelamenduak ofizioz edo alde batek eskatuta interpretatzea.
- b) Planteatzen diren errekurtsioak (diziplinaren eta afiliazioaren arlokoak bereziki) ebaztea.
- c) Alderdiaren Kode Etikoa betetzen dela ofizioz edo alde batek eskatuta zaintzea.

#### **49. artikulua**

Bermapide Batzordeko lehendakaria batzordekideen artean aukeratu beharko da. Batzordekideen artean adostasunik izan ezean, Batzar Nagusiak egingo du izendapena.

Bermapide Batzordea beharrezkoa den aldi guztietan bilduko da, eta deialdia lehendakariak egingo du. Erabakiak gehiengoz hartuko dira.

Bermapide Batzordearen ebazpenen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

Batzar Nagusiak Bermapide Batzordearen funtzionamendua arautu ahal izango du.

### III. ATALA. HIRI ORGANOAK

#### **50. artikulua**

Hiri Erakundea oinarrizko lurralde-organoa da, eta horri atxikitzen zaizkio inguru horretan bizi diren alderdikideak. Salbuespen gisa, eta interesdunak eskaera arrazoitua egin ondoren, Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzak Hiri Erakunde baten eremuan bizi ez den pertsona baten afiliazioa onartu ahal izango du, betiere Hiri Erakunde horri entzun ondoren.

Non bizi diren kontuan hartu gabe, zinegotziak ordezkatzeko duten udalerriko Hiri Erakundekoak izango dira, eta, kargu publikoa betetzen duten aldiak, Hiri Erakunde horretara aldatu beharko dute afiliazioa, ondorio guztietarako.

Ezein alderdikide ezin da izan Hiri Erakunde bat baino gehiagoko kide aldi berean.

#### **51. artikulua**

Hiri Erakunde bat eratzeke, hamar alderdikide beharko dira gutxienez. Udalerri batean Hiri Erakunderik ez badago edo Hiri Erakundea eskatutako alderdikide kopurua osatzeko jenderik ez zegoelako desegin bada, alderdikideek eskualde bereko beste Hiri Erakunde batean emango dute izena, behin-behinean eta euren borondatez. Hori egin ezean, Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako idazkariak, hilabete bateko epean eta eskualdeko ordezkariari entzun ondoren, eskualde bereko beste Hiri Erakunde batera adskribatuko ditu alderdikide horiek. Aldez aurretik, Hiri Batzorde Eragileari eta Lurraldeko Koordinazio Batzordeari jakinaraziko die neurri hori hartu izana.

#### **52. artikulua**

Hiri Erakundea Hiri Batzarraren eta Hiri Batzorde Eragilearen bidez egituratuta dago.

### **HIRI BATZARRA**

#### **53. artikulua**

Hiri Batzarra Hiri Erakundearen organo gorena da, eta eremu horretako alderdikide guztiek osatzen dute, deialdia behar bezala egin ondoren.

#### **54. artikulua**

Hiri Batzarrak koordinatzaile bat eta Hiri Batzorde Eragilea aukeratuko ditu bere kideen artean, Antolaketa Erregelamendu Nazionalari jarraiki.

#### **55. artikulua**

Hiri Batzarra Biltzar Nagusia egin eta hilabete bateko epean bilduko da. Alderdikiderik zaharrenak eta bi gazteenek osatuko duten Adin Mahaiak zuzenduko du bilera hasieran.

Batzarraren Mahaia eratu ondoren, Hiri Batzorde Eragilea aukeratzeko prozedura (Antolaketa Erregelamendu Nazionalan ezarritakoa) hasiko da.

#### **56. artikulua**

Hiri Batzarrerako deialdia Mahaiak egingo du, koordinatzaileak eskatuta. Ohiko Hiri Batzarra urtean lau aldiz bilduko da gutxienez, baita Alderdiaren Biltzar bakoitza eta hauteskunde-lehia bakoitza baino hilabete lehenago ere. Halaber, udal-aurrekontuak onartu behar direnean egingo da Hiri Batzarrerako deialdia.

Gainera, ezohiko Hiri Batzarrak egingo dira, koordinatzaileak eta Hiri Batzorde Eragileko kideen gehiengoak eskatuta, edo gutxienez Erakunde horretako alderdikideen laurdenek idatziz eskatuta.

Deialdiaren eta Batzarraren artean, gutxienez zazpi egun igaroko dira. Ezohiko deialdiaren epea 48 ordu izango da gutxienez. Deialdian, aztertu beharreko gaien zerrenda agertuko da.

Antolaketa Erregelamendu Nazionalak aurkakoa dioenean izan ezik, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

#### **57. artikulua**

Hiri Batzarraren funtzioak honako hauek dira:

- a) Alderdiaren jardun politikoa, ideologia eta programak bultzatzea eta zabaltzea, eta afiliazioa eta adiskide kopuruaren gehikuntza sustatzea. Horretarako, Hiri Batzarraren eskumena izango da Hiri Batzorde Eragileak proposatu beharreko plana onartzea.

- b) Hiri Batzorde Eragilea eta bertako koordinatzailea aukeratzea, Estatutu hauei jarraiki.
- c) Udal Taldeko hautetsiak ez diren langileen izendapena eta kargu-uztea onartzea, Hiri Batzorde Eragileak proposatuta.
- d) Biltzar Nagusirako konpromisarioak aukeratzea, Estatutu hauei jarraiki.
- e) Hiri Batzorde Eragilearen eta udal-kargu publikoen jarduna kontrolatzea eta bultzatzea.
- f) Hiri Erakundearen kontuak eta finantzak onartzea, Alderdiaren Finantza Gutunean ezarritakoari jarraiki.
- g) Udal-hauteskundeetarako zerrendak lantzeko eta onartzeko prozesuan parte hartzea. Zerrenda horiek Batzar Nagusiak berretsi beharko ditu, hiriburuetakoz zerrendaburuen kasuan izan ezik. Zerrenda arauz ezarritako baldintzetan eta epeetan onartzen ez bada, Nazio Batzorde Eragilea automatikoki gaituta geratuko da Batzar Nagusiari hauteskunde-zerrenda bat proposatzeko, hark berrets dezan.
- h) Udal-hauteskundeetarako programak onartzea, Alderdiaren organo nazionalak onartzen dituzten irizpide orokorrekin jarraiki eta alderdikideen eta adiskideen parte-hartzearekin.
- i) Udal-taldeak udal-aurrekontuen inguruan hartutako erabakia onartzea.

#### **58. artikulua**

Udal-kargu publikoek beren kudeaketaren deskarguak egingo dituzte ohiko Hiri Batzar bakoitzean. Hiri Batzarrak dagokien jardun-eremuaren inguruko kudeaketa-deskargua egiteko eskatu ahal izango die udalaz gaundiko kargu publikoei.

### **HIRI BATZORDE ERAGILEA**

#### **59. artikulua**

Hiri Batzarrak Hiri Erakundea zuzentzeko eta administratzeko aukeratutako organoa da Hiri Batzorde Eragilea.

Hiri Batzarrei deialdia egin beharko zaie, edozein hauteskunde edo plebiszitu egin eta hiru asteko gehieneko epean bil daitezten.

#### **60. artikulua**

Hiri Batzorde Eragilea koordinatzaile batek eta hiru batzordekideek osatuko dute gutxienez, eta Hiri Erakunde horretako Gazte Abertzaleak taldeko ordezkari bat berezko kide izango da Batzordean.

Alderdiko alkatea edo udal-bozeramailea ere Hiri Batzorde Eragileko kidea izango da, eta hitza izango du, baina botorik ez. Alkartetxe bat baino gehiago dauden herrietan, alkartetxe horietako gerenteak edota, hala badagokio, kudeaketa-batzorde bakoitzeko kide bat Hiri Batzorde Eragileko kideak izango dira, betiere alderdikideak badira, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

Alderdiak liberatutako eta hiri-erakunde horri atxikitako langileek hiri-batzorde eragilean parte hartu beharko dute hark eskatzen dien guztietan, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Hiri Batzorde Eragileak, eratu ondoren, idazkaria eta diruzaina aukeratuko ditu kideen artean.

## **61. artikulua**

Hiri Batzorde Eragilea bere funtzioak betetzeko beharrezkoa den guztietan bilduko da.

Antolaketa Erregelamendu Nazionalak aurkakoa dioenean izan ezik, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

## **62. artikulua**

Hiri Batzorde Eragilearen oinarrizko funtzioak honako hauek dira:

- a) Bere lurralde-eremuko politikan eta gizartean parte hartzea, Alderdiko organoek onartutako irizpideei jarraiki.
- b) Bere lurralde-eremuan Alderdiaren politika zabaltzea, aplikatzea eta defendatzea.
- c) Hiri Erakundearen jardun-eremuko gizartearen eta Alderdiaren arteko komunikazio- gune izatea. Horretarako, eremu horretan egindako jardunen Memoria egingo du urtero.
- d) Hiri Erakundearen baliabide ekonomikoak administratzea, Alderdiaren Finantza Gutunean ezarritakoari jarraiki.
- e) Hiri Erakundeko alderdikideen eztabaida politikoa, parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzea. Horretarako, sektore bakoitzeko gaiak aztertzeke batzordeak edo lantaldeak sortu ahal izango dira.
- f) Hiri Batzarraren eta Alderdiaren gainerako organoen jarraibideak betearaztea.

- g) Hiri Batzarrari Estatutuen arabera dagozkion tokiko kargu publiko guztien izendapena proposatzea.
- h) Tokiko kargu publikoen jardunaren jarraipena eta kontrola egitea.
- i) Alderdikideak eta jarraitzaileak erakartzeko kanpainak sustatzea.
- j) Hauteskundeetako intendentzian laguntzea eta, horretarako, kanpainen esparruan egiten diren hauteskunde-ekitaldiak antolatzea eta horietan parte hartzea; postaz edo notarioaren aurrean emandako botoak dagokion eremuan kudeatzea; eta hauteskunde-egunaren eta egun horretan izandako gorabeheren jarraipena eta kontrola egitea eta, horretarako, ahaldunak eta ikuskatzaileak izendatzea.
- k) Tokiko hauteskunde-programetarako, udal-aurrekontuetarako eta Batzarrak bidezkotzat hartzen dituen batzorde sektorialetarako, parte-hartzean oinarritutako prozesuak bultzatzea.
- l) Hiri Batzarra ordezkatuz jardutea, Hiri Batzarrak hori erabakitzen duen kasuetan.

#### IV. ATALA. ESKUALDEKO ETA LURRALDEKO KOORDINAZIO ORGANOAK

##### ESKUALDEEN KOORDINAZIOA

###### **63. artikulua**

Euskal Herriko eskualdeak Alderdiaren antolamenduan ordezkatuta egongo dira, eta Lurraldeko Koordinazio Batzordea osatuko dute, Estatutu hauetan eta garatzen dituen araudian ezarritako baldintzetan.

###### **64. artikulua**

Eskualdeen koordinazioa Eskualde Batzarraren eta Eskualdeko Koordinazio Organoaren bidez egituratuta dago.

##### ESKUALDE BATZARRA

###### **65. artikulua**

Eskualde Batzarra eskualdea, bailara edo kuadrilla osatzen duten herri eta hiri-erakundeetarako komunikazio-, antolamendu- eta erakunde-dinamizazioko organoa da.

Eskualdeko hiri-erakundeetako alderdikide guztiek osatzen dute Eskualde Batzarra, hitzarekin eta botoarekin, baldin eta alderdikide gisa dagozkien eskubideak erabat balia baditzakete.

## **66. artikulua**

Eskualde Batzarra Biltzar Nagusia egin eta bi hilabeteko epean bilduko da. Alderdikiderik zaharrenak eta bi gazteenek osatuko duten Adin Mahaiak zuzenduko du bilera hasieran.

Eskualde Batzarraren Mahaia eratu ondoren, Batzarrak eskualdeko koordinatzailea aukeratuko du.

## **67. artikulua**

Eskualde Batzarrerako deialdia Mahaiak egingo du eta Batzarra eskualdeko koordinatzaileak zuzenduko du. Ohiko Eskualde Batzarra urtean lau aldiz bilduko da gutxienez, baita hauteskunde-lehia bakoitza baino lehen ere.

Gainera, ezohiko Eskualde Batzarrak egingo dira, koordinatzaileak, Eskualdeko Koordinazio Batzordeko kideen gehiengoak edo gutxienez Eskualde Batzarreko kideen seirenak eskatuta.

## **68. artikulua**

Deialdian gai-zerrenda agertuko da, eta gutxienez 7 eguneko epea izango da deialdia egiteko, aparteko larrialdiko arrazoen kasuan izan ezik. Larrialdia Batzarrera bertaratutako kideen gehiengo absolutuak onartu beharko du, eta gai-zerrendako lehen puntu gisa bozkatuko da.

Erabakiak gehiengo sinplez hartuko dira.

## **69. artikulua**

Eskualde Batzarraren oinarritzko funtzioak honako hauek dira:

- 1.- Eskualdeko koordinatzailea aukeratzea.
- 2.- Eusko Alkartasunaren eskualdeko koordinazioa bultzatzea eta antolamendua egituratzea.
- 3.- Udaletan eta hiri-eremuko gainerako erakundeetan planteatzen diren erakunde-ekimenak koordinatzea.
- 4.- Eskualdeko Koordinazio Batzordearen kudeaketa onartzea edo gaitzestea.
- 5.- Goragoko organoetatik jasotako arauak, erabakiak eta jarraibideak betetzea.

6.- Alderdiaren Lurralde Batzarrari Alderdiaren mesederako izan daitezkeen gai guztiak proposatzea.

7.- Hiri-erakundeak dinamizatzeko elementu izatea, eta, horretarako, eztabaida, barne-komunikazioa, ideien elkartrukea, parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzea.

## ESKUALDEKO KOORDINAZIO BATZORDEA

### 70. artikulua

Eskualdeko koordinazio-organoa da, eta eskualdeko koordinatzaileak, eskualdeko herrietako hiri-batzorde eragileetako koordinatzaileek eta eskualdean dauden kargu publiko guztiek osatzen dute (azken horiek hitza dute, baina botorik ez). Nolanahi ere, udalerri bakoitzak eskualdeko koordinazio-organoan gutxienez boto bat izatea bermatuko da.

### 71. artikulua

Alderdiaren, alderdiak bere lurralde-eremua osatzen duen udalerri bakoitzeko kargu eta ordezkarien eta eskualde-eremua gainditzen ez duten udalaz gaindiko erakundeen jardura koordinatzea, dinamizatzea eta jarraipen politikoa egitea dira Batzordearen funtzioak.

Halaber, Batzordearen funtzioa da alderdikide guztien eztabaida politikoa eta Eskualdeko Batzarrean parte hartzeko aukera bultzatzea eta sustatzea, goragoko organoek emandako jarraibideen arabera.

### 72. artikulua

Hauteskunde-kanpainetan, Eskualdeko Koordinazio Batzordeak koordinatu beharko ditu, alderdiaren gainerako organoekin lankidetzan, hauteskunde-ekitaldien antolamendua, parte-hartzea eta hauteskundeetako intendentziaren berezko gainerako alderdiak, eta horietan lagundu beharko du.

### 73. artikulua

Eskualdeko Koordinazio Batzordeak Eskualde Batzarra ordezkatzuz jardun ahal izango du, Eskualde Batzarrak hori erabakitzen duenean.

### 74. artikulua

Eskualdeko Koordinazio Batzordea bere funtzioak betetzeko beharrezkoa den aldizkakotasunarekin bilduko da, eta hilean behin gutxienez.

## LURRALDE BATZARRA

## **75. artikulua**

Alderdiak Lurralde Historiko bakoitzean garatzen duen jardueraren eta lurralde-eremu horretako ordezkarien jardueraren jarraipen politikoa egiten duen organoa da Lurralde Batzarra.

Nafarroa Behereko, Lapurdiko eta Zuberoako alderdikideek, bertako egoera soziopolitiko berezia dela-eta, Lurralde Batzar bakarra eratuko dute euren borondatez, Estatutu hauen arabera, eta Batzar horretatik sortuko da dagokion Lurraldeko Koordinazio Batzordea.

## **76. artikulua**

Lurralde Batzarra osatzen dutenak honako hauek dira:

- a) Dagokion lurraldeko Hiri Erakundeen Batzarrek aukeratutako ordezkariak (Hiri Erakunde bakoitzeko 1, eta 15etik gorako frakzio bakoitzeko beste bat).
  - b) Lurraldeko Koordinazio Batzordeko kideak.
  - c) Lurraldeko Erakundearen barruko Hiri Erakundeetan afiliatuta dauden Batzar Nagusiko kideak.
  - d) Beren funtzioak betetzen dituzten eremuko hautetsiak eta izendapen askeko karguak.
  - e) Gazte Abertzaleak taldeko ordezkari bat.
  - f) Lurraldeko alderdikide guztiak.
- a) idatz-zatian adierazitako kideek baino ez dute botoa emateko eskubidea izango.

## **77. artikulua**

Lurralde Batzarra Biltzar Nagusia egin eta bi hilabeteko epean bilduko da. Alderdikiderik zaharrenak eta bi gazteenek osatuko duten Adin Mahaia zuzenduko du bilera hasieran. Ondoren, Lurralde Batzarraren Mahaia aukeratuko da.

Mahaia eratu ondoren, Batzarrak lurralde-koordinatzaile bat aukeratuko du bertako kideen artean. Koordinatzaile hori Nazio Batzorde Eragileko kidea izango da, eta Alderdiaren jardura politikoa lurraldean koordinatzeko eta egituratzeko funtzioa beteko du.

## **78. artikulua**

Lurralde Batzarrerako deialdia lurralde-koordinatzaileak egingo du. Ohiko Lurralde Batzarra urtean lau aldiz bilduko da gutxienez, baita hauteskunde-lehia bakoitza baino hilabete lehenago ere.

Gainera, ezohiko Lurralde Batzarrak egingo dira, koordinatzaileak eta Lurraldeko Koordinazio Batzordeko kideen gehiengoak eskatuta, edo gutxienez Batzarreko kideen herenek idatziz eskatuta.

Deialdian gai-zerrenda agertuko da, eta gutxienez 7 eguneko epea izango da deialdia egiteko, aparteko larrialdiko arrazoiak kasuan izan ezik. Arrazoi horiek Batzarreko kideen gehiengo absolutuak onartu beharko ditu.

Antolaketa Erregelamendu Nazionalak aurkakoa dioenean izan ezik, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

Lurralde Batzarrei deialdia egin beharko zaie, edozein hauteskunde edo plebiszitu egin eta hiru asteko gehieneko epean bil daitezten.

## **79. artikulua**

Lurralde Batzarraren oinarrizko funtzioak honako hauek dira:

- a) 81. artikuluan adierazitako Lurraldeko Koordinazio Batzordeko batzordekideak eta koordinatzailea aukeratzea.
- b) Alderdiaren jardun politikoaren esparruan lurraldeko koordinazioa eta egituraketa bultzatzea.
- c) Batzar Nagusiari eremu nazionalean hartutako erabakiak eta ebazpenak lurralde bakoitzak dituen berezitasunetara egokitu daitezen proposatzea.
- d) Batzar Nagusiari bere eskumeneko hauteskunde-eremuetarako programak proposatzea, Alderdiaren egitura nazionalek kasu bakoitzean ezarritako irizpide orokorre jarraiki.
- e) Lurraldeko Koordinazio Batzordearen kudeaketa onartzea edo gaitzestea.
- f) Goragoko organoetatik jasotako arauak, erabakiak eta jarraibideak betetzea.
- g) Alderdiaren organo nazionalak Alderdiaren mesederako eta funtzionamendu egokirako izan daitezkeen gai guztiak proposatzea.

## **LURRALDEKO KOORDINAZIO BATZORDEA**

## **80. artikulua**

Lurraldeko Koordinazio Batzordea Alderdiaren eta haren ordezkarien jarduera lurralde-eremuan koordinatzen, dinamizatzen eta horren jarraipena egiten duen organoa da, organo nazionalak emandako jarraibide sektorialeak eta estrategikoei jarraiki.

## **81. artikulua**

Lurraldeko Koordinazio Batzordea lurralde-koordinatzaileak, eskualdeetako ordezkariak, hiru, lau edo bost batzordekideak eta Gazte Abertzaleak taldeko berezko kide batek osatuko dute, Idazkaritza Nagusiek onartzen dituzten Lurralde Idazkariordetzak aparte utzi gabe.

Lurraldeko Koordinazio Batzordeko kideak izango dira, halaber, diputatu nagusia edo foru-diputatu bat, Nafarroako Foru Komunitateko presidentea edo kontseilari bat, eta Batzar Nagusietako edo Nafarroako Foru Parlamentuko bozeramailea. Horiek guztiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta parte hartzen duten erakundearen inguruko informazioa eman beharko diote Batzordeari.

## **82. artikulua**

Lurraldeko Koordinazio Batzordea hilean behin bilduko da gutxienez.

### **III. ATALBURUA. KARGU PUBLIKOAK**

#### **83. artikulua**

EAK aurkeztutako edo babestutako hauteskunde-zerrendetan hautatu dituzten edo Alderdiak erakunde publiko batean, organismo batean edo Administrazio Publikoaren mendeko enpresa batean izendapen politikoko karguak betetzeko proposatu dituen pertsonak –alderdikideak zein alderdikide ez direnak– dira EAko kargu publikoak.

#### **84. artikulua**

Kargu publikoen eskubideak honako hauek dira:

- a) Beren jarduera garatzen duten erakundean EA publikoki ordezkatzeara.
- b) Beren funtzioak betetzean EAren babesa jasotzea.
- c) Eraginpean hartzen dituzten erabaki edo txosten guztiei buruzko informazioa jasotzea.
- d) Beren jarduerarekin zuzeneko zerikusia duten gaiak eztabaidatu edo erabakiko diren Alderdiaren batzar eta bilera guztietan hitzarekin parte hartzea.
- e) Beren jarduera garatzeko Erakundearen laguntza teknikoa eta babesa jasotzea, kargua betetzearen ondoriozko arazoetan beharrezkoa den laguntza juridikoa barne.

#### **85. artikulua**

Kargu publikoen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Alderdiaren Kode Etikoa ontzat hartzea eta betetzea.
- b) EArekiko jarrera zintzoa eta konpromisokoa agertzea eta karguaren berezko zereginak betetzea, erakunde-taldearen funtzioen banaketari jarraiki eta dagokien erakundearen argibideekin.
- c) Alderdiaren bidezko erakundeari beren jardunaren berri aldizka eta behar den garaian ematea, erakundeak eskatuta edo beren borondatez. Halaber, beren funtzioak eskatzen duenean, informazio hori herritarrei, oro har, ematea.
- d) Beren jarduerarekin zuzeneko zerikusia duten Alderdiaren batzarretara eta bileretara joatea. Halaber, Alderdiak deitutako ekitaldi publikoetara eta, bereziki, tradizio historikoko ekitaldi nazionaletara joatea (hala nola Aberri Egunera edo Alkartasun Egunera), arrazoi justifikatuen kasuan izan ezik.

- e) EAren Finantza Gutunean finkatutako erregimen ekonomikoa errespetatzea eta betetzea.
- f) Kargua arauz eta antolamenduz dagokion organoaren, hautagai izendatu zuen organoaren edota izendapenaren arduradunaren esku uztea, horiek era adostuan eta arrazoituan eskatzen dutenean.

Kargu publikoak alderdikideak ez diren kasuetan aurreko idatz- zatietan adierazitako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, kargu publikoa duenak izenpetu beharreko dokumentu bat formalizatuko da. Dokumentu horretan, betebeharrak horiek zintzo betetzeko konpromisoa hartuko du kargu publikoak.

#### **IV. ATALBURUA. DIZIPLINA ERREGIMENA**

##### **86. artikulua**

Estatutuen eta alderdikideek eta kargu publikoek bete beharreko erregelamenduen aurkako ekintzak eta ez-egiteak diziplinako arau-haustek dira.

##### **87. artikulua**

Egindako hutsegiteak edo arau-haustek honela sailkatuko dira, gertakarien izaera, garrantzia eta asmoa kontuan hartuta: arinak, larriak edo oso larriak.

##### **88. artikulua**

Zehatzeko eskumena duten alderdiko organoen ahalmenak sei hilabetez preskribatuko du hutsegite arinen kasuan, bi urtean hutsegite larrien kasuan, eta lau urtean oso larrien kasuan.

##### **89. artikulua**

Diziplina Erregelamenduak finkatuko ditu jokabideak. Edonola ere, hutsegite arintzat, larritzat edo oso larritzat hartuko dira. Nolanahi ere, honako hauek hartuko dira hutsegite oso larritzat:

1. Alderdiaren Kode Etikoa urratzea.
2. Kargu publiko bat betetzean Alderdiaren estrategia haustea.
3. Alderdiaren organo eskudunak esanbidez hartutako erabakiaren aurka zentsura-mozio bat izenpetzea edo babestea, edota erabakia babesteari uko egitea.  
  
3 bis.- Gobernu-itun bati atxikitzea eta/edo gobernu-itun bat formalizatzea Nazio Batzorde Eragilearen esanbidezko erabakirik gabe.
4. Alderdiaren, oro har, edo haren edozein organoren irudia eta sinesgarritasuna kaltetzen dituzten adierazpen publikoak egitea.
5. Nahitaezko baimenik gabe beste alderdi edo hauteskunde-koalizio baten hauteskunde-zerrendan txertatzea.
6. Edozein erakundetan Alderdiaren Taldea uztea.

7. Alderdia ordezkatzeko duen edo Alderdiak izendatu duen kargu publiko gisa erregelamenduaren arabera dagozkion ekarpenak ez egitea, horiek ordaintzeko zinez eskatu ondoren.
8. Kargu publiko batek bere kargua alderdiaren esku ez uztea, behartuta dagoen kasuetan.

## **90. artikulua**

Hutsegite arin bat eginez gero, zehapena idazki bidezko kargu-hartzea izango da.

Hutsegite larri bat eginez gero, gehieneko zehapena, zirkunstantzien arabera eta hutsegitearen larritasuna kontuan hartuta, afiliazioaren etendura izango da (urtebete gehienez).

Hutsegite oso larri bat eginez gero, zehapena afiliazioaren etendura (urtebete gutxienez eta lau urte gehienez) edota Alderditik kanporatzea izango da. Etenduraren eta kanporatzearen kasuan, zehatutako pertsonak betetzen dituen kargu publikoak eta organikoak utzi beharko ditu, eta, etendurak dirauen artean, desgaituta geratuko da alderdiaren karguak zein alderdia ordezkatzeko karguak betetzeko.

## **91. artikulua**

Kargu publiko bat betetzen duen pertsonak delitu batengatik salatzen dutenean edo delitu bat egozten diotenean, kargua alderdiaren esku utzi beharko du, Nazio Batzorde Eragileak zera erabaki dezan, (Bermapide Batzordearen txostena jaso ondoren, eta kargu publikoari berari eta haren hiri-erakundeari entzun ondoren), justiziak errugabea ala erruduna den ezartzen duen arte jarduera politikoa utzi behar duen ala ez.

## **92. artikulua**

Hutsegite arinen, larrien eta oso larrien ondoriozko diziplina-espedienteak Nazio Batzorde Eragileak irekiko ditu. Horretarako, organo horrek bideratzaile bat izendatuko du alderdikideen artean, eta arauz ezarritako moduan bideratuko da.

Diziplinaren arloko ebazpenen aurkako errekurtsua jarri ahal izango da Bermapide Batzordean.

Diziplina-espedientea bideratzen duena Nazio Batzorde Eragileko kide bada, ezin izango du parte hartu Nazio Batzorde Eragileak diziplina-espedientea ebazteko garaian hartu beharreko erabakien eta ebazpenen inguruko eztabaidetan eta bozketetan.

Zehapen-prozedura eta hutsegiteen eta zehapenen tipifikazioa bakarrak izango dira Alderdi osoan, eta Batzar Nagusiak onartu beharko ditu.

Nolanahi ere, kanporatzea eta alderdikideei dagozkien eskubideak kentzea aldebiko prozeduren bidez baino ezin izango dira ezarri. Prozedura horietan, neurri horiek eragin dituzten gertakariei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, neurriak hartu aurretik entzunak izateko eskubidea eta zehapena ezartzen duen erabakia arrazoitua izateko eskubidea bermatuko zaizkie eraginpean hartutakoei.

### **93. artikulua**

Nazio Batzorde Eragileak diziplinaren arloan ematen dituen ebazpenen aurka errekurtoa jarri ahal izango dute eraginpean hartutakoek Bermapide Batzordean, hogeita hamar eguneko epean. Bermapide Batzordeak gehienez ere hiru hilabeteko epean eman beharko du ebazpena.

Bermapide Batzordearen ebazpenen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

## **V. ATALBURUA. GAZTE ABERTZALEAK**

### **94. artikulua**

Gazte Abertzaleak EAren gazte-erakundea da, eta 31 urtetik beherako alderdikide guztiak afilia daitezke bertan. Erakundearen funtzio nagusia EAren gazteria-arloko politikak lantzea, zuzentzea eta koordinatzea da.

Gazte Abertzaleak taldeak bere egiten ditu EAren ideia politikoak, haren balioekin bat dator, eta balio horiek gazteen artean bultzatzeko konpromisoa hartzen du. Bi erakundeen arteko harremana bi Batzar Nagusiek horretarako onartuko duten protokoloan zehaztuko da.

Gazte Abertzaleak taldeak antolamendu-maila bakoitzean duen koordinatzailea edo arduraduna Alderdiaren maila bereko organoko berezko kide izango da.

## **VI. ATALBURUA. FINANTZA GUTUNA**

### **95. artikulua**

EAK, alderdi politiko gisa, erabateko ahalmen juridikoa eta jardutekoa du. Hortaz, bere helburuak lortzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak eskuratu, erabili, administratu, errentan eman eta besterendu ahal izango ditu.

### **96. artikulua**

EAren ondasun eta eskubide guztiek eta etorkizunean edozein titulu dela- eta eskuratzen dituen guztiek osatuko dute Alderdiaren ondarea.

Ondare hori zatiezina da, eta Alderditik kanporatu izanak, Alderdian baja hartu izanak edo Alderdiko erakundeak desagertu edo desegin izanak ez du eskubiderik emango ondarearen kuotak jasotzeko, itzultzeko edo banatzeko, eskubide hori Alderdiarena baino ez baita izango.

### **97. artikulua**

EAren ogasuna honako hauek osatuko dute:

- Alderdiaren ondareak.
- Alderdikideen arauzko zein borondatezko kuotek.
- Ondarearen eta Alderdiaren berezko jardueren errendimenduek.
- Jasotzen dituen legezko dohaintzek, herentziek eta diru-laguntzek.
- Erregelamenduaren arabera kargu publikoei eta Legebiltzarreko, batzarretako eta udaletako taldeei dagozkien kopuruek.
- Alderdia erakundeetan egoteagatik sortutako diru-laguntza ofizialek eta diru-sarrerek.
- Alderdien finantzaketa publikoak.
- Legezko beste diru-sarrera batzuek.
- Hiri-erakundeen kontu korronteek; kontu horiek Eusko Alkartasunaren izenean egon beharko dute.

#### **98. artikulua**

Kuota indibiduala alderdikideek EAri ekonomikoki eusteko egiten duten ohiko ekarpena da.

Ohiko kuota banku-helbideratzearen bidez ordainduko da, eta kuota hori, kobratzeko aldia eta Alderdiaren antolamendu-mailen artean banatzeko modua arauz finkatuko dira.

#### **99. artikulua**

Erakunde publikoetatik jasotako diru-laguntza edo ekarpen guztiak Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzaren kontuan sartuko dira oso-osorik, eta hark Batzar Nagusiak Nazio Batzorde Eragilearen proposamenez ezartzen dituen irizpideei jarraiki erabiliko ditu; nolanahi ere, legez ezarritako araudia behar bezala bete beharko da.

#### **100. artikulua**

EAKo kargu publikoek –hautetsiek zein izendatuek– Alderdiaren finantzaketan parte hartu beharko dute, arauz ezarritako moduan.

#### **101. artikulua**

Alderdiaren baliabideak optimizatzeko helburuarekin –finantzen administrazioan jarraibide komunak aplikatu beharragatik, alderdikideen eta gizartearen aurrean gardenak izateko eskakizunagatik eta indarrean dagoen legeriara egokitzeko beharragatik–, EAK erakunde osoaren aurrekontu bateratua egingo du eta, horretarako, Alderdiaren antolamendu-maila guztien aurrekontuak batuko ditu.

Horretarako, Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzak Alderdiaren urteko aurrekontua egingo du, eta Batzar Nagusiari aurkeztuko dio, hark aurrekontu-ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen onar dezan. Horretarako, Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako idazkariak dagokien urteko aurrekontua jasoko du hiri- eta lurralde-erakunde guztietatik, behar adinako aurretiaz.

Adierazitako Idazkaritzak, halaber, ekitaldi ekonomikoaren balantzea aurkeztuko dio Batzar Nagusiari, hark onar dezan, aurkezten den ekitaldiaren hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen.

Aurrekontua zein balantzea laburtuta argitaratuko dira urtero Batzar Nagusiko kideentzat. Halaber, kontsultatu nahi dituen edozein alderdikiderentzat eskuragarri egongo dira.

Kontuen Auzitegiak ikuskatu diren kontabilitateko egoera-orrien inguruan aldizka egiten duen txostena Batzar Nagusiko kideen eskura utziko da, baita haren berri izan nahi duen edozein alderdikideren eskura ere.

## **102. artikulua**

EAK urteko Kudeaketa Planaren eredu bat ezarriko du, eta Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritza arduratuko da eredu hori egiteaz, kontrolatzeaz eta haren jarraipena egiteaz, Alderdiaren organo guztiekin lankidetzan.

## **103. artikulua**

Alderdiaren egitura tekniko-administratibo osoa, giza baliabideak barne, Nazio Batzorde Eragilearen mende egongo da, Batzorde Iraunkorraren eguneroko kudeaketari dagokionez ezarritakoa aparte utzi gabe. Nolanahi ere, Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzaren ardura izango da.

Alderdiaren edozein antolamendu-mailatako langileak kontratatzeko, indarrean dagoen lan-legerian ezarritako arauei jarraitu beharko zaie, eta Nazio Batzorde Eragilearen onarpena beharko da beti, Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Gaietarako Idazkaritzak txostena egin ondoren.

Batzar Nagusiari lanpostu hutsen eta kontratazioen berri emango zaio.

EAK beharrezko egitura tekniko-administratiboa eta giza baliabideak eduki beharko ditu funtzionatzeko. Horretarako, Nazio Batzorde Eragileak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu behar adinako baliabideak ez dituzten erakundeentzat.

## **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Pertsona berak ezin izango du ezein kargu organiko bete segidako hiru agintaldi baino gehiagotan.

## **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Karguak meta ez daitezen, bateraezintasun-erregimena arauz ezarriko da.

## **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Eusko Alkartasunak Alkartetxeko Erakunde bat (historikoki Alkartetxeko Batzordea zena) baino gehiago dituen herrietan, horiei eutsi ahal izango zaie, betiere egiten duten lana alderdiaren topaleku eta komunikazio- eta dinamizazio-bide gisa justifikatzen bada. Erakunde horietako bakoitzaren administrazio-kudeaketa Alkartetxeko gerente edo kudeaketa-batzorde baten bidez egingo da, Antolaketa

Erregelamendu Nazionalen finkatzen den moduan. Nolanahi ere, Erregelamendu hori eguneratu egin beharko da horretarako.

Alkartetxeko gerentearen (edo, kide anitzekoa bada, erakundearen kudeaketa-batzordearen) ardura nagusia lokala alderdikideen topagune gisa administratiboki kudeatzea eta komunikazio eta dinamizazio politikorako bidea izatea da, Hiri Batzorde Eragilearen zuzendaritza politikopean eta alderdiko organoekin koordinatuta. Halaber, dagokion Hiri Batzorde Eragileko kidea izango da, eta hitza izango du, baina botorik ez.

### AZKEN XEDAPENEN ARTEAN LEHENA

Estatutu hauek Biltzar Nagusiaren Osoko Bilkurak onartzen dituenetik aurrera jarriko dira indarrean.

### AZKEN XEDAPENEN ARTEAN BIGARRENA

Estatutu hauek honako arau, plan edo erregelamendu hauek garatuko dituzte gutxienez, eta hamabi hilabeteko gehieneko epean aurkeztuko dira onartzeko.

- Alderdiaren Kode Etikoak.
- Hizkuntza Normalizatzeko Planak.
- Antolaketa Erregelamendu Nazionalak.
- Erregimen Ekonomikoko Erregelamenduak.
- Eskubideen, Betebeharren eta Diziplina Prozeduraren Erregelamenduak.
- Bateriaezintasun Erregelamenduak.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Estatutu hauetan xedatutakoarekin bat ez datozen arau, erregelamendu edo xedapen guztiak indargabetuta geratuko dira.

#### **ARABA**

San Prudentzio, 3  
01005 Gasteiz  
T. 945 23 27 62  
F. 945 23 29 53  
[araba@euskoalkartasuna.org](mailto:araba@euskoalkartasuna.org)

#### **BIZKAIA**

Areatza, 2-3  
48005 Bilbao  
T. 94 416 10 33  
F. 94 415 62 94  
[bizkaia@euskoalkartasuna.org](mailto:bizkaia@euskoalkartasuna.org)

#### **GIPUZKOA**

Portuetxe Bidea, 23  
20018 Donostia  
T. 943 02 01 30  
F. 943 02 01 31  
[gipuzkoa@euskoalkartasuna.org](mailto:gipuzkoa@euskoalkartasuna.org)

#### **NAFARROA**

Plaza del Castillo, 49-1º  
31001 Iruña  
T. 948 22 06 91  
F. 948 22 17 34  
[nafarroa@euskoalkartasuna.org](mailto:nafarroa@euskoalkartasuna.org)

#### **IPARRALDE**

34 Rue Pannecau  
64100 Baiona  
T. 05 59 25 50 98  
F. 05 59 25 50 98  
[iparralde@euskoalkartasuna.org](mailto:iparralde@euskoalkartasuna.org)